






irakaslearen
liburua

GAZTEAK
eta **ADMINISTRAZIOA**

aurkibidea

	3	Sarrera
	5	A: Gazteak eta administrazioa
	11	B: Gaztelekuak eta gaztetxeak
	17	C: Parrandara autobusean
	21	D: Isunak
	26	E: Herrietako festak
	30	F: Kirolak
	33	G: Erreferentziak

sarrera

Hemen duzu "Gazteak eta administrazioa" izeneko unitate didaktikoa. Unitate didaktiko hau Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek argitaratu duten "Idatziak" liburuxkarekin batera lantzekoa da. Euskara normaltasunez erabiltzen laguntzeko beste pausotxo bat baino ez da hemen proposatzen duguna.

Aipatu duguna ez da, hala ere, helburu bakarra. Beste hainbat izan ditugu gogoan unitatea diseinatzerakoan, honako hauek besteak beste:

- ✓ Gazteak eta administrazioa elkarrengana hurbiltzea. Administrazioa zerbait iluna eta urruna dela pentsatzen dutenentzat, baliagarria izan daiteke lehenengo pausua emateko, eta hain urrun ez ikusteko. Era berean, eta herritar moduan, baditugu geure eskubideak, eta horietako batzuk dira hainbat gauza eskatzea, kexatzea..., beti ere, jakina, logikotasun baten barruan.
- ✓ Unitate honen azken helburua idatziak lantzea da, zalantzarik gabe. Ikasleek eskaera, kexa, erreklamazioa eta abar nola egin, nori zuzendu...ikasiko dute.
- ✓ Azken helburua idatzia izan arren, bidean ahozkotasuna ere landuko dute. Jakin badakigu, askotan eta askotan, hori zaila izaten dela, eta unitate honek horretan ere lagundu nahi du. Egoera errealak aurkezten dira eta egoera horiek izango dira, hain zuzen ere, ahozkotasuna eta idatzizkoa lotzeko zubi-lana egingo dutenak.
- ✓ Gaiei dagokienez, bestalde, gazteak kezkatzen dituen gaiak dira, euren interesekoak, hurbilekoak, gaur-gaurkoak: gaztelekuak eta gaztetxeak, kirolak, herrietako festak, isunak... Eguneroko bizitzan ere horrelako gaiei buruz hitz egiten dute, beharbada, gaztelaniaz. Unitate hau landuz, euskaraz hitz egiteko eta idazteko aukera emango zaie ikasleei.
- ✓ Kontuan izan unitate hau ez dela zurruna, itxia... Unitateko gaiak, testuak, ariketak eta abar norberak aukera ditzake, aldatu, egokitu, gelako kideen beharretara moldatu. Ikastunitatea dagoenetan erabiltzea ondo iruditu ezean, ez dago zertan ataza guztiak bata bestearen atzetik landu; esate baterako, aste batean lan daiteke ataza bat eta hurrengoan beste bat. Zenbait kasutan gaiak eurak ere izan daitezke arazo. Horrelakoetan komenigarria litzateke helburuak zeintzuk diren ondo zehaztea eta bai klaustroan, bai gurasoen aurrean azaltzea. Drogen kontuekin eta sexualitate kontuekin prebentzio lana egiten den moduan, gazteen artean beste gai batzuk ere jorra daitezke egoerak aztertzeko. Horrelakoetan gurasoen parte hartzea ere garrantzitsua da.

- ✓ Ezin ahaztuta utzi talde lanak daukan garrantzia. Garrantzitsua da begiratzen dugun aldetik begiratzen dugula. Esate baterako:
 1. Kontuan hartuta lankidetzaren oinarri-oinarrizkoa dela pertsonaren garapenerako. Lan honetan lan asko taldeka egin beharko dituzte: eztabaidak, erabakiak hartu, bozera-maleak aukeratu...
 2. Bada beste kontu bat hizkuntza eta talde lana zuzen-zuzenean lotzen dituena. Zer gertatzen da gure ikasleekin gela barruan euskaraz baina kanpoan gazteleraz hitz egiteko? Faktore asko izango dira horretan eragina dutenak, baina, nola hitz egingo dute ez badaude ohituta euren artean gauza ludikoez eta euren interesekoez euskaraz hitz egiten? Ahozkotatuta gela barruan ere landu beharra dago; aukera eman behar zaie euren artean kezkatzen dituzten gaien inguruan aritzeko, eta horretarako, zer hobeto talde lana baino?
- ✓ Gizarteak, gaur egun, pertsona sortzaileak eskatzen ditu, erabakiak hartzeko gai izango direnak, eta egoera batzuen aurrean nola jokatu jakiteko irizpide batzuen jabe direnak. Lan honek, zeharka bada ere, hori bultzatzeko aukera ematen duelakoan gaude.

Aurrera, bada, eta ekin lanari. Izan ere, jarritako helburuak ez dira gutxi eta ezta nolana hikoak ere, beraz, horiek lortuz gero, bai gure ikasleei eta baita gure euskarari ere mesede egingo diegu.

Arrasateko Udal Euskaltegia

A: gazteak eta administrazioa

Helburuak:

- ✓ *Administrazioari zuzendutako eskaera bat nola egin daitekeen lantzea.*
- ✓ *Ikasleak taldean euskaraz aritzera bultzatzea.*
- ✓ Ikasleak administrazioa hurbiltzea euren esperientziatik abiatuz.
- ✓ Data jartzen ikastea.
- ✓ Irakurriz eta entzunez osatutako testu baten gainean hausnarketa egitea.

Zertan den:

Ikasleek, euren esperientzian oinarritutako sarreratxo baten ostean, eta Lorea Agirrerri egindako elkarrizketa aitzakiatzat hartuta, baieztapen batzuen inguruan hausnartuko dute. Horretaz gain, eta kontuan hartuta azken helburua ikasleek idazkiak ekoiztea dela, HAEEk eskaera idazkien inguruan dioena landuko dute.

1 Gazteak eta administrazioa

- ↘ **ATAZAURREA:** ✓ Bost bat minutuz ikasleak aurrean dituzten galderen inguruan pentsatzen jarri. Kontuan izanda, beharbada, administrazioarekin izan duten harremana urria dela; nahi izanez gero, gaia zabaldu, hau da, ez mugatu galderetara (nahiz eta administrazioa zuzenean ezagutu ez, duten iritzia jakitea ere interesgarria da).
- Aurreiritziak**
- 1.1.
- ✓ Talde txikietan jarrita, aipatutako punturik garrantzitsuenak zeintzuk diren erabaki dezatela, eta ondoren, bozeramaileak beste taldeetakoiei emango die puntu horien berri.
 - ✓ Taldeak beharra edo interesa duela ikusiz gero, talde osoan komentatu intereseko puntuak.

- ↘ **ATAZA:** ✓ "Gazteen eta administrazioaren artean sekulako leizea dago". Eman ikasleei Lorea Agirrerri egindako elkarrizketaren sarrera eta lehenengo galdera, eta esan irakurtzeko.
- Testuaren**
- inguruko hausnarketa**
- 1.2.
- ✓ Ondoren, jarri hirunaka eta eman zati bana irakur dezaten: bati A zatia, bigarrenari B zatia eta C zatia hirugarrenari. Irakur dezatela arretaz, gero kontatu egin beharko baitute.
 - ✓ Irakurri ondoren konta diezaiotela elkarri.
 - ✓ Banaka. Ikasle bakoitzak irakurri eta entzun duenarekin, erantzun ditzala idatziz ikasleen liburuan dituzten 6 galderak.
 - ✓ Elkartu berriro lehengo hirukoteak eta erkatu egindako lana.

- ↘ **FEEDBACKA:** ✓ Bana iezaiezu jatorrizko testua eta aldera ditzatela testua eta eurek idatzitakoa.
- Aurreiritziak**
- 1.3.

- ↘ **ATAZAOSTEA:** ✓ Ikasleek, talde txikietan, eman dezatela baieztapenen inguruan dituzten iritzia.
- 1.4.
- ✓ Talde bakoitzean bozeramaile bat izenda dezatela puntu bakoitzaren inguruan taldetxoan esandakoa laburbiltzeko eta gainontze-koen aurrean azaltzeko.

2 Eskabideak nola egiten diren



ATAZAUREA:
Nola idatzi
eskaera idazkia
2.1.

✓ Administrazioarekiko harremanetan gehien erabiliko duten idazkia, segur aski, eskaera izango da. Helburua ikasleek horrelakoak egiten jakitea da, baina horretarako, ereduak behar dituzte. Atazaurre honetan HAEk dioena aurkeztuko diezu ikasleei. Horretarako:

- Ikasleek euren liburuko 13.orrialdeko eskema irakurriko dute.
- Denon artean eman erantzuna ondoko galderoi: zein da gaia?, zein helbururekin idatzi du idatzi duenak?, zenbat atal ditu eskaera-orri horrek? eta abar.
- Hartu berriro 13. orriko eskema, eta atal bakoitzaren ezkerrean jar dezatela dagokion izena. Horretarako, 14. orriko laukian dituzte atal guztien izenak, baina desordenatuta.
- Egindakoa erka dezatela ondokoarekin eta, ondoren, zuzenketa orriarekin.

ESKEMA

[norentzakoa >](#)

[izenburua >](#)

[eskatzailearen datuak >](#)

[azalpena >](#)

[eskaera >](#)

[oina amaierako esaldia >](#)

[toki-egunak >](#)

[sinadura >](#)

[izen-abizenak >](#)

ADIBIDEA

Aitor Goikoetxea Esnal
Gazte zerbitzua
Arrasateko Udala

TXOZNA JARTZEKO ESKAERA

Eskatzailearen datuak

Izen-abizenak: Elena Argarate Laiz
NA zk.: 16.996.556
Helbidea: Udalaitez kalea 8, 6. E
20500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943-79 14 28

Azalpena

- Aurten, 2004. urteko uztailean, hain zuzen ere, Arizmendi ikastolako DBHko 4. mailakook kurtso amaierarako bidaia egingo dugu.
- Bidaia hori egin ahal izateko beharrezkoa dugu dirua lortzea; izan ere, helburua denok joatea da, ez dadila inor geratu joan gabe diru arazoengatik.

Eskaera

- Santamas jaietan Monterronen, beste txoznekin batera, txozna jartzeko baimena ematea.
- Argia eta ura Udalak ordaintzea.

Eskatutakoa onartuko duzulakoan, ongi izan.

Arrasaten, 2004ko urriaren 3an



Elena Argarate Laiz

- HAEKk gai honen inguruan dioena irakurriko dute ikasleek. Esan ikasle bati lehenengo atala irakur dezala ozenki. Lehenengo atal hori irakurritakoan 13. orrialdera jo eta ikusi irakurritakoa nola gauzatzen den praktikan.
- Beste ikasle bati esan bigarren atala irakurtzeko eta gauza bera egin. Horrela, atal guztiekin: zatika irakurri eta adibidea-rekin konparatu.

Garbi geratu behar zaie eskaera-idazki batek zein osagai dituen eta horietako bakoitzean zer agertu behar den.



ATAZA:
Eskaera
idatziaren atalak
identifikatu
2.2.

- ✓ Banaka irakur dezatela eskabidea.
- ✓ Atalen bat falta bada, osa dezatela. Horretaz gain, zerbait gaizki idatzita badago, zuzendu egin beharko dute.
- ✓ Nork, zer eta nori atalak bereiz ditzatela.



FEEDBACKA:
Atalak
2.3.

- ✓ Bikote bati berak idatzi duena azaltzeko eskatu.
- ✓ Gainontzekoen zalantzak argitu.

Zuzenketa orria

NORK

Izen-deiturak: Peio Alkorta Etxebeste
Jaioteguna: 1986ko martxoaren 17an
Helbidea: Elizondo kalea 17, 2. esk.
Herria: Gurtegi
NA zk.: 11.978.766
Telefona: 943 67 57 94

ZER

Gaiaren azalpena:

Nire etxearen azpian lokal bat daukagu. Orain arte itxita egon da eta ez du inork erabili. Lagunok non bildu ez daukagunez, eta lokala nire gurasoena izanda, txukuntzea pentsatu dugu bertan egon ahal izateko. Horretaz gain, musika taldea eratu berria dugu eta entseatzeko primeran datorkigu aipatutako lokala.

Eransten diren agiriak:

- Lokalaren jabetzaren titulua.
- Atartekoen baimena sinatuta.

Eskaera:

Lokala txukundu eta bertan entseatzeko baimena ematea.

Nire eskaria onartuko duzuelakoan, agur t'erdi.

Gurtegi, 1991ko maiatzaren 5a

NORI

GURTEGIKO ALKATE ANDREA.
GURTEGI.



GRAMATIKA ETA DISKURTSOA: Data nola adierazi 2.4.

- ✓ Eman ikasleei datak idazteko orduan erabil ditzaketen formak.
- ✓ Esan ikasle bati nola jarriko lukeen egun horretako data; beste bati jaio zen egunekoa; hirugarren bati... Idatz ditzatela arbelean.

B: gaztelekuak eta gaztetxeak

Helburuak:

- ✓ *Aurreko atazan "Gazteak eta administrazioa" eta ataza honetan ikasitako guztia kontuan hartuz, eskaera idazki bat idaztea.*
- ✓ *Ikasleak taldean euskaraz aritzera bultzatzea.*
- ✓ *Ikaskideen iritzia eta aportazioak entzuten eta baloratzen ohitzea.*
- ✓ *Udaleko arloak eta sailak ezagutzea.*
- ✓ *Ikasleek gaztetxearekin duten harremanaz hausnartzea eta iritzia ematea.*
- ✓ *Gaztetxeen eta gaztelekuen arteko desberdintasunez ohartzea eta euren iritzia ematea.*

Zertan den:

Ataza honetan gaztetxea eta gaztelekua izango dira mintzagai. Ikasleek euren iritzia emango dute gai honen inguruan eta, era berean, Eibarko Errota gaztelekuari buruzko informazioa jasoko dute.

Atazaren bukaeran, gaztetxean egin beharreko obra batzuk direla eta, eskaera idatzi bat egingo dute. Horretarako, aurretik, udala zein arlotan eta zein sailatan banatuta dagoen ikusiko dute. Izan ere, edozein idazkitan nori zuzenduta dagoen jarri beharko dute eta hori egiteko ikasleek Udaleko sailak ezagutu egin beharko dituzte.



Iritziak eta informazioa trukatzeko



ATAZAUURREA: **Gaiari hurbiltzen.**

1.1.

- ✓ Azaldu ikasleei zein izango den ataza honetako gaia eta zer egin beharko duten amaieran.
- ✓ Jar itzazu ikasleak hiruko edo lauko taldeetan eta azter dezatela zein desberdintasun egon daitekeen gazteleku baten eta gaztetxe baten artean. Horretarako, gogora dezatela aurreko atazan Lorea Agirrerri egindako elkarrizketa. Esandakoarekin osa dezatela ikaslearen liburuan duten taula.
- ✓ Talde bakoitzean izenda dezatela bozeramaile bat, eta talde txikian esandakoa, hau da, taulan dutena, azal diezaitela gelakide guztiei. Horrela, taula osatzen joan denon artean.
- ✓ Herriko egoera aztertu taldeka: herrian gaztelekurik edo gaztetxerik dagoen, zein egoeratan dagoen, jenderik joaten den...
- ✓ Baliteke taldean gaztetxeekin harreman estua dutenak eta gaztetxe bat inoiz zapaldu ez dutenak egotea. Aurretik jakinez gero, komeni da ikasle horiek nahastea.
- ✓ Talde batekoek adierazitakoa beste taldekoek esandakoarekin osa daiteke, beraz, ikasleek taldeetan berbetan diharduten bitartean, erreparatu puntu honi. Taldeko lana amaitzen dutenean, ozenki, denon artean komentatu.



ATAZA: **Gaztelekua.** **Informazioa jasotzen.**

1.2.

- ✓ Ezer baino lehen ikasleek euren liburuan dituzten galderak irakur ditzatela.
- ✓ "Eibarko Errota gaztelekua" izeneko elkarrizketa entzun dezatela.
- ✓ Binaka jarri eta erantzun diezaitela elkarrizketari buruzko sei galderari.
- ✓ Jar ezazu berriro elkarrizketa norbaitek zerbait jaso ez badu, bigarren aukera bat izan dezan.
- ✓ Bigarren aldiz entzundakoarekin bikoteek osa ditzatela emandako erantzunak.

- **FEEDBACKA:** ✓ Bikote bakoitzak eman diezaiola erantzuna galdera bati; eta horrela galdera guztiak zuzendu.
- 1.3.
- **ATAZAOSTEA:** ✓ Jar itzazu ikasleak talde txikietan eta har dezatela berriro hasierako taula. Orain duten informazioarekin taula osa dezatela.
- 1.4.
- ✓ Horretaz gain, eztabaida dezatela Arrasaten gazteleku batek izango lukeen arrakastari buruz.
- ✓ Galdetu ikasleei arrakastaren alde edo kontra emandako argudioen inguruan.
- ✓ Jar itzazu arrazoiak arbelean eta galdetu ikasleei ea zeini emango lioketen lehentasuna.

2 Udaletan arlo ezberdinak daude

- **ATAZAURREA:** ✓ Gogorarazi ikasleei zerbait eskatzeko idazten dutenean, nori zuzenduta dagoen jarri beharko dutela.
- 2.1.
- ✓ "Arloen egituraketa" irakurri eta horko berba edo kontzeptuak argitu.
- ✓ Jar itzazu ikasleak binaka eta lot ditzatela ezkerreko zutabekoak eskuineko zutabekoekin.
- ✓ Bana iezaiezu zuzenketa-orria eta erka dezatela egindako lanarekin.

Oharra: kontuan izan hemen duzun egituraketa Arrasateko Udalekoa dela. Beste herri batean bazaude, egituraketa desberdina izan daiteke, beraz, herri horri dagokiona landu beharko litzateke.

Zuzenketa orria

- 1) Udaletxea ordezkatu
- 2) Obra lizentziak, jarduerak jartzeko lizentziak eta establezimenduak irekitzeko lizentziak eman.
- 3) Obra txikiak egiteko lizentziak eman.
- 4) Agirien sarrera-irteerak erregistratu.
- 5) Kaleak garbitu.
- 6) Trafikoa zaindu.
- 7) Diru sarrerak eta gastuak kontrolatu.
- 8) 60 urtetik gorako pertsonak lagundu eta zaindu.
- 9) Abiadura eta aparkamentuak kontrolatu.
- 10) Emakumea babesik gabe dagoenean, egoera aztertu eta baloratu.
- 11) Jaien antolaketa kudeatu.
- 12) Udal diru fondoak erabili, zaindu eta kudeatu.
- 13) Obra proiektua idatzi eta exekutatu, kaleak urbanizatu, parkeak eta lorategiak, oinezko bideak egin, udal eraikinak...
- 14) Gazteek aisialdi ekintzetan nahiz prestakuntzan, enplegu eta zerbitzuetan behar izaten dituzten eskariei erantzun.
- 15) Arrasaten euskararen erabilera sustatu, bertako elkarte, eskola eta entitateekin elkarlanean.

Alkatea (Alkatetza).

Hirigintza eta obrak.

Hirigintza eta obrak.

Idazkaritza (Alkatetza).

Zerbitzuak eta mantenua (Zerbitzu, mantenu eta auzoak).

Udaltzaingoa (Alkatetza).

Ogasuna eta kontuak (Barne kudeaketa eta kalitatea).

Osasuna eta ongizatea (Gizarte sustapena)

Udaltzaingoa (Alkatetza).

Emakume Saila (Gizarte sustapena).

Kultura (Euskara eta kultura sustapena).

Ogasuna eta kontuak (Barne kudeaketa eta kalitatea)

Hirigintza eta obrak

Gazteria arloa (Gizarte sustapena)

Euskara (Euskara eta kultura sustapena)

>>

16) Kirol modalitate ezberdinak praktikatu ahal izateko, herritar guztiei benetako aukera eskaini.

17) Gurasoen Elkarteen jarduera eta gizar-tearen hainbat sektoretatik hezkuntzari laguntzeko sortzen diren ekimenak finantzatu.

18) Hondakinak, hondakin urak eta kutsadura kontrolatu.

19) Enplegua sustatu.

20) Langabeak prestatu.

Kirolak (Euskara eta kultura sustapena).

Hezkuntza (Euskara eta kultura sustapena).

Ingurumena (Garapen estrategikoa).

Enplegu eta garapen ekonomikoa (Garapen estrategikoa).

Enplegu eta garapen ekonomikoa (Garapen estrategikoa).

✓ Kontzepturen edo ideiaren bat ilun geratu bada, argi ezazu.

Informazio gehiago www.arrasate-mondragon.net orrian aurkituko duzu.



ATAZA:
Udaleko sailak
2.2.

✓ Jarri ikasleak hirunaka eta zerrenda ditzatela gaztetxe edo gazte-leku batean egon daitezkeen arazoak. Zein harreman eta zertarako izan dezakete horko gazteek udalarekin? Ikaslearen liburuan hainbat adibide dituzte. Osa dezatela zerrenda.

✓ Bata bestearenak entzunda, zerrenda bateratu bat egin.

✓ Egia da horrelako eskaerak bideratzeko modurik errazena guztiak Gazteria Sailera bidaltzea dela. Han, eskaera motaren arabera, sail batera edo bestera bideratuko dituzte Gazteriakoeak. Hala ere, eta ikasleek Udaletako Sailak hobeto ezagut ditzaten, komeni da beste zein bidetatik jo dezakegun ere lantzea. Beraz, Gazteria Sailik izango ez bagenu, nora jo beharko genuke? Jar daitezela taldeka eta pentsa dezatela nora bidaliko lituzketen.

✓ Talde bakoitzean bozeramaile bat izendatu eta esan dezatela zein ondoriotara iritsi diren talde txikietan. Guztien artean eztabaidatu eta ados jarri.

Hona hemen zuzenketa-orria izan daitekeena:

Herriko plazan gaztetxeari buruzko hitzaldia emateko baimena.

KULTURA (EUSKARA ETA KULTURA SUSTAPENA)

Barruko horma bat botatzeko baimena.

HIRIGINTA ETA OBRAK

Billarrerako mahaia erosteko dirulaguntza.

KULTURA

Gaztetxea margotzeko dirulaguntza.

ZERBITZUAK ETA MANTENUA

Gaztetxekoek errekek garbitzeko asmoa dute. Bilduko duten jendearentzat eskularruak eta abar beharko dituzte. Material hori erosteko dirulaguntza.

INGURUMENA

Diru laguntza gaztetxean bertan hitanoari buruzko ikastaroa antolatzeko.

EUSKARA



ATAZA

Eskaera

2.3.



Irakurri ikasleekin batera zein den egoera.



Eskaera idazten hasi aurretik gogorarazi zeintzuk diren azaldu beharko diren atalak.



"Idatziak" liburuxkako 9. atalera jo eta eredu batzuk irakur ditzatela.



Ikaslearen liburuan dituzten ideiak ordena eta osa ditzatela.



Idatz dezatela eskaera.



FEEDBACKA

2.4.



Ondoren, binaka, bata besteari irakurri idatzi dutena eta egin ditzatela hobetzeko proposamenak. Proposamen horiekin aurrez idatzi dutena osatu beharko dute.

C: parrandara autobusean

Helburuak:

- ✓ *Eredua aztertu ondoren eskari idatzia egitea.*
- ✓ *Ikasleak taldean euskaraz aritzera bultzatzea.*
- ✓ Parrandarekin, gaupasekin eta gaueko autobus-zerbitzuekin izan duten esperientzia kontatzea.
- ✓ Beste batzuek emandako argudioak entzun eta horien inguruko iritzia ematea.
- ✓ Beste ikaskide batek egindako idazkia baloratzea eta norberarekin erkatzea.

Zertan den:

Ikasleak, euren esperientzia kontuan hartuta, parranden inguruan arituko dira. Gai horren barruan bada puntu garrantzitsu bat, gaueko autobus zerbitzuari dagokiona, hain zuzen ere. "Parrandan kotxerik gabe" eta "Autobusez parranda" izeneko entzungaiak landuko dituzte, batean jendeak autobus zerbitzuaren alde ematen dituen arrazoiak jasoz eta aztertuz; eta bestean, jarritako gezurak topatu eta euren ordean informazio zuzena jarri.

Behin gaia jorratuta eta eredua aztertuta, eskari idatzia egin beharko dute. 3. ataza izanda ikasleak gai izango dira idazki bat hartu eta esateko zein atal agertu behar diren, argi dagoen ala ez... Horixe izango da, hain zuzen ere, ikasleek ataza honetan egin beharko duten azkenengo lana.

1 Parrandan autorik gabe



ATAZAURREA: Norbere esperientzia.

1.1.

- ✓ Azaldu ikasleei zein izango den ataza honetako gaia eta zer eskatuko zaien ataza amaieran.
- ✓ Jar itzazu ikasleak binaka eta komenta ditzatela aurrean dituzten galderak. Indar berezia jarri azkenengo galderan, hori baita bereziki interesatzen zaiguna.
- ✓ Azkenengo galderari emandako erantzunak denon artean komentatu eta informazioa osatu.



1 ATAZA: Parrandan autorik gabe.

1.2.

- ✓ Azaldu ikasleei zer entzungo duten: asteburu gauetarako Gipuzkoako aldundiak jarri behar duen autobus zerbitzuari buruzko inkesta da. Lau pertsonak zerbitzu horri buruzko iritzia azaltzen dute.
- ✓ Entzun ahala, ikasleek jaso ditzatela jendeak autobus zerbitzuaren alde emandako arrazoiak.



FEEDBACKA: 1.3.

- ✓ Jar itzazu ikasleak binaka eta osa dezatela jasotakoa.



ATAZAOSTEA: 1.4.

- ✓ Bikoteak mantendu eta eman dezatela jasotako arrazoiaren inguruko euren iritzia.



2 ATAZA: "Autobusez parranda"

1.5.

- ✓ Azaldu berriro ikasleei zer entzungo duten oraingoan. Ikasleek badakite asteburuetakoko parrandek auto istripu asko eragiten dutela, eta Gipuzkoako Aldundiak gauez autobusak jartzeko ekimena abian jarri duela. Teknikari batek zerbitzuaren xehetasunak azaltzen ditu.
- ✓ Entzun dezatela.
- ✓ Irakaslearen liburuan duten testua irakurri eta dauden gezurrak lokaliza ditzatela. Lokalizatu ondoren, zuzendu, hau da, gezurren ordeztu egia jarri.
- ✓ Behar izanez gero, berriro jarri entzungaia .



FEEDBACKA: ✓ Jar itzazu ikasleak binaka.

1.6.

✓ Erka dezatela egindakoa.

✓ Denon artean zuzendu. Horretarako, ikasle pare bati ozen irakurtzeko eska dakiok, baina gezurrak dauden lekuan egiak irakurritz. Bide batez, irakurketa ozena eta intonazioa ere landuko dituzue horrela.

Zuzenketa-orria

Gauetako autobus zerbitzua jartzea erabaki du diputazioak. Helburua da gazteek aisialdi-erako bidaletan, ahal den neurrian behintzat, ibilgailu pribatua gutxiago erabil dezaten eta joan-etorriak seguruago eta erosoago egin ditzaten. Lehendik ere baziren autobus konpainia batzuk asteburuetako gaueko autobus zerbitzua eskaintzen hasiak zirenak; esperientzia horretan oinarritu dira. Izan ere, dagoeneko zerbitzua eskaintzen dutenei **ez dirudi gaizki doakienik**, eskaintzen jarraitzen dute eta.

Autobus konpainiekin harremanetan jarri zirenean, alde batetik esaten zuten gaueko zerbitzuek ohikoek baino kostu **handiagoa** dutela eta defizitarioak izango zirela, horregatik **Diputazioak finantziatuko ditu** zerbitzu horiek; eta beste aldetik enpresa horien kezka nagusia da gaueko ordu horietan bidaiariak izan dezaketen portaera, bai gidariaren segurtasun aldetik eta baita autobusek jasan dezaketen kalteengatik ere.

Dena den, autobus konpainia askok eman dute baietza eta larunbat gaueko 23:00etatik igande goizeko 06:00etara bitarteko zerbitzua eskainiko dute. Zerbitzua urriaren 6an jarriko da martxan, eta egun horretatik aurrea, asteburuero **larunbatetik** igandera bitarteko gau horretan izango da zerbitzua.

Aipatutako esperientzia proba gisa egingo da, 5 hilabeterako. Eta gero, ondorioak aterako dituzte: nola joan den, jendeak erabili duen... Ikusiko balute gazteek euren portaera aldatzen dutela, autoa etxean utzi eta autobusa erabiltzen dutela, aurrerantzean pentsatu egingo lukete asteburu guztirako zabaltea zerbitzu hori.

Oraingoz **12** autobus jarriko dira lanean eta ibilbidearen arabera ezarriko dira ordutegiak, baina gehienak orduz-ordu edo **ordu eta erditik ordu eta erdira** izango dira.

Jakina denez, gazteak ez dira euren herrietan geratzen, asteburuetan batetik bestera mugitzen dira ostiral eta larunbatetan; horren ondorioz, 2.400 bat erabiltzaile espero dituzte gau bakoitzean. Dena den, ez dakite horrela izango den, hori gero ikusi behar baita, hau da, 5 hilabeteko epea amaitzen denean; orduan, zerbitzuak aztertu eta ondorioak aterako dira.

Hauxe izan da Aintzane Lauzurikari, Gipuzkoako Diputazioko Garraio Saileko teknikariari egindako elkarrizketa.

2 Eskabidea egiten



ATAZA: Eskaera.

2.1.

- ✓ Aurkeztu ikasleei egin behar duten lana: eskaera eta gaia.
- ✓ Idatzi aurretik eztabaida dezatela taldeka jarriko lituzketen autobus lineen inguruan.
- ✓ Aukeratutakoaren arabera eta zer egin behar duten ondo ulertu ondoren, has daitezela idazten.
- ✓ Idazten hasi aurretik garrantzitsua da ikasleek euren liburuxkan dituzten galderen inguruan hitz egin dezaten: zein atal, nori zuzendu, zer jarri...



FEEDBACKA: 2.2.

- ✓ Behin idatz-ariketa amaituta, elkarren ondoan dauden ikasleek truka ditzatela euren lanak.
- ✓ Ikasleek euren eta ondoko ikaskidearen idatziak baloratu beharko dituzte. Lan horretan laguntzeko euren liburuan dituzte galderatxo batzuk.
- ✓ Balorazioa egiten dutenean, ondoriorik nagusienak klaseratu. Beharbada, lan hori egiteko aurretik emandako teoriari begiradaxo bat bota beharko diote, osagaiak edo atalak, formatoak, etab. berrikusteko.
- ✓ Jaso itzazu idatzi guztiak zeuk zuzentzeko.

D: isunak

Helburuak:

- ✓ *Bideoan ikusitakoaren haritik, udaletxera erreklamazio idatzi bat egitea, behar dituen atal guztiekin.*
- ✓ Isuna jartzeko egon daitezkeen arrazoiak aztertzea.
- ✓ Ikasleek isunen inguruan dakitena esplizitatzea.
- ✓ Bideoan ikusiko duten egoera jakin baten aurrean iritzia ematea.

Zertan den:

Ikasleek isunik jaso duten eta isunak jartzeko zein arrazoi egon daitezkeen komentatuko dute. Ondoren, gaiari heltzeko, aparkaleku isunak landuko dituzte. Horretarako, baieztapen batzuen inguruko hipotesiak egingo dituzte eta hutsunedun testu bat osatu beharko dute; baita "Trafiko isunak" izeneko bideoa ikusi ere iritzia emateko.

Atazaren amaieran, eta aurreko saioetan bezala, udaletxerako zerbait idatziko dute. Gai honetan, ohikoena den moduan, erreklamazio bat idatzi beharko dute; udaltzainek jarritako isun bat ken diezaieten.

1 Isunen inguruan

- **ATAZAUURREA:** ✓ Azal iezaiezu ikasleei zein izango den ataza honetako gaia eta zer egin beharko duten atazaren amaieran.
- Isunak.**
- 1.1.
- ✓ Jar ezazu "Musika altuegi jarrita" izeneko bideoa. Tabernako musika dela-eta, etxepeko batek tabernariaren aurkako salaketa egin du ertzainei deituta. Eskatu iritzia ikasleei.
 - ✓ Jar itzazu ikasleak binaka eta komenta ditzatela ikaslearen liburuan dituzten bi galderak.
 - ✓ Esan beharrekoa esanda, bikote bakoitzak komentatu duenaren laburpena egingo dio talde osoari. Horrela, informazioa osatzeaz gain, bata bestearen esperientziaren berri izango dute.

- **ATAZA:** ✓ Ikasleek testu batetik ateratako hainbat hitz dituzte. Binaka jarrita hipotesiak egingo dituzte euren liburuan dituzten galderei erantzuteko.
- Aparkalekuko isunak.**
- 1.2.
- Oraintxe da momentua ulertzen ez dituzten berbak galdetu edo hiztegian bila ditzaten.
- ✓ Bikote bakoitzak besteen aurrean azalduko du komentatu dutena. Denen artean informazioa osatuko dute.
 - ✓ Egin iezaiezu ikasleei testuaren laburpentxo bat euren hipotesiak zuzenak diren ala ez ikus dezaten.
 - ✓ Jar itzazu ikasleak binaka edo hirunaka. Ikasleek ikaslearen liburuxkan dituzten baieztapenak euren ustez egia ala gezurra diren esango dute. Egia ala gezurra den esateaz gain, emandako erantzuna arrazoitu dezatela.
 - ✓ Talde bakoitzekoak ondoko taldekoekin bilduko dira egindakoa erkatzeko.



FEEDBACKA: 1.3.

- ✓ Esan ikasleei osorik dagoen testua hartzeko, eta ikus dezatela ea baieztapenen inguruan esan dutena egia den ala ez (erantzunak beltzez dituzte).
- ✓ Ikasleek zalantzaren bat badute, argi ezazu; liburuxka honetan duzu zuzenketa orria zeregin horretan laguntzeko, beltzez daude-nak dira erantzunak.



GRAMATIKA ETA DISKURTSOA 1.4.

- ✓ Hiztegia lantzeko, osorik dagoen testua gordeko dute eta, horren ordez, hutsuneduna hartu.
- ✓ Testua hiru zatitan banatuta dago: 1 ("Gauza normala da... gora egin ez dezan"), 2 ("Isuna ordaindu eta gero...Herri Aldizkariaren bidez") eta 3 (Isunaren berri ... posible da preskripzioa alegatzea").
- ✓ Egin itzazu 3 talde
- ✓ Talde bakoitzari zati bat eman (1, 2 edo 3) eta pentsa dezatela dagokien zatiaren hutsuneetan zein berba falta den.
- ✓ Talde ezberdinetan egondako ikasleak bildu, hau da, 1 taldeko bat, 2 taldeko beste bat eta 3 taldeko hirugarren bat. Azal diezaio-tela elkarri euren taldeetan esandakoa.



FEEDBACKA 1.5

- ✓ Erka dezatela egindakoa jatorrizko testuarekin.
- ✓ Zalantzarik baldin badute kontsulta dezatela euren artean edo galde diezazutela zeuri.
- ✓ Ikasle bakoitzak idatz ditzala bere koadernoan gaur ikasitako hiru berba eta euren definizioak.
- ✓ Jarri ikasleak hirunaka. Bakoitzak bere hitzak zeintzuk diren eta nola definitu dituen azaldu beharko du.



2003/02/16

APARKALEKU ISUNAK

Itziar Elorza

Gauza normala da automobilaren bila joan eta garabiak eraman duela ikustea. Denoi gertatu zaigu noizbait. Edo, kasurik onenean, isuna baino ez digute jarri, baina automobila ez digute eraman.

Isunarekin ados ez bagaude, gure esku dago neurri bat edo beste hartzea.

Garabiak automobila eraman badigu, garabiaren gastua eta isuna ordaindu beharko ditugu berriro ere hartzeko. Lehenik, ibilgailuak bide publikotik eramateagatik kobratzen den zerga ordaindu beharko dugu. **Zerga hori aldatu egiten da udal batetik bestera;** dena den, diru kopuru finkoa da beti, eta hainbateko bat gehitzen zaio automobil gordailuan igarotako egun bakoitzeko. Ordaintzea izaten da onena, ez baitago beste biderik automobila eskuratzeko. **Gainera, hobe da ahalik azkarren ordaintzea, ordaindu beharrekoak gora egin ez dezan.**

Isuna ordaindu eta gero, hilabeteko epea dugu Udalaren aurrean helegite edo errekurtsua aurkezteko. Helegite horretan, datu hauek azaldu behar dute: gure datuak eta ibilgailuarenak; bestalde, automobila eramateko arrazoirik ez zegoela ziurtatu behar da.

Garabiak zenbait kasutan baino ezin du gure automobila eraman, esaterako: automobila txoferrik gabe eta bigarren ilaran badago, eta beste automobil bati ateratzen uzten ez badio. Kasu horretan, legea garabiaren alde dago. Isuna atzera bota nahi badugu, frogatu egin behar dugu gure automobila ez zegoela kasu horietako batean.

Isunaren berri behar bezala jaso arte itxaron behar dugu. Automobila gordailutik ateratzean, baliteke isuna une horretan bertan hartzea. Edo, bestela, gutun ziurtatu bat bidaliko digute etxera, jaso izanaren adierazpenarekin. **Gutuna hartu nahi ez badugu, uko egiten badiogu, horren berri eman beharko digute eskualdeko Herri Aldizkariaren bidez.**

Isunaren berri jaso eta gero, 15 eguneko epea dugu helegite edo deskargu plegua aurkezteko. Helegitea aurkeztu baino lehen ez da beharrezkoa isuna ordaintzea.

Deskargu pleguan, automobila eramateko arrazoirik ez zegoela argudiatu behar dugu; edo bestela, gure ekintza nolabait zuritu, behar adina froga aurkeztuz. Frogarik izan ezean, orduan hobe da prozedurak izan ditzakeen forma akatsetan oinarritzea, deskargua aurkezteko.

Preskripzioa eta epez kanpoko jakinarazpenak ohikoak dira. Esaterako, **arau-haustea gertatu zenetik isunaren berri ematen diguten arte bi hilabete igaro badira, preskripzioa alegatzeko aukera dugu.**

Arau-haustea gertatu zenetik ebazpena edo erabakia ateratzen den arte zazpi hilabetetik gora igaro badira, orduan ere posible da preskripzioa alegatzea.

- ✓ Desberdin duten kasuetan, aztertu ondo ala txarto dagoen eta zalantzak argitu.

2 Erreklamazioa idazten



ATAZAUURREA: Trafiko isunak. 2.1.

- ✓ Azaldu ikasleei zer ikusiko duten: trafiko-isunak baliogabe uzteko aukera.
- ✓ Jar iezaiezu bideoa eta eskatu ikusi dutenaren inguruko iritzia.



ATAZA: Erreklamazioa. 2.2.

- ✓ Azaldu ikasleei erreklamazio bat egin beharko dutela egoera zehatz bat kontuan hartuz.
- ✓ Egoera azaldu erreklamazioa idatz dezaten.
- ✓ Idazten jarri aurretik, eskatu ikasleei pentsa dezatela zein izan daitekeen erreklamazioan jarriko duten arrazoia. Nahi izanez gero, esaten dituzten arrazoiak arbelean jaso ditzakezu, eta ikasleek idazteko orduan, aukera dezatela horietako bat.
- ✓ Erreklamazioa idatzi.



FEEDBACKA: 2.3.

- ✓ Erreklamazioak jaso zuzenketa egiteko.
- ✓ Zuzenketak eginda itzuli ikasleei.

E: herrietako festak

Helburuak:

- ✓ *Eskaera egitea udalekoei ekintza jakin bat jaietako egitarauan txerta dezaten.*
- ✓ *Ikasleak taldean euskaraz aritzera bultzatzea.*
- ✓ Testu bat irakurri eta ikasleek euren burua testuko talderen batekin identifikatzea, hau da, euren jokabide eta zaletasunez hausnartzea.
- ✓ Herriko jaien inguruan duten iritzia azaltzea.
- ✓ Herriko jai egitaraua aztertzea.

Zertan den:

Lehendabizi ikasleek inguruko jaien gainean zenbat dakiten neurtuko dute. Horretarako jai jakin batzuk herri batzuekin identifikatu beharko dituzte. Ondoren, "Nolako jaiak, halako gazteak" irakurri eta gero, euren burua zein taldetan sartuko luketen pentsatuko dute ikasleek; talde egokirik egon ezean beste bat sortu euren neurrira.

Herrira etorritik, jaietan zer egiten duten eta jaiari buruz zein iritzi duten aztertuko dute. Jai egitaraua ere aztertuko dute eta ikusi egitarau horretan zer den egokia eurentzat edo euren adinekoentzat.

Bukatzeko eskaera idatzi bat egingo dute udaletxera gustuko duten ekintzaren bat egitarauan txerta dezatela eskatzeko.

1 Herrietako jaiak

- **ATAZAURREA:**
Inguruetako jaiak
1.1.
- ✓ Azaldu ikasleei zein izango den ataza honetako gaia eta amaieran egin beharko duten lantxoak.
 - ✓ Galdetu ikasleei ea inguruko herrietako jaietara joaten diren, eta erantzuna baiezkoa bada, zein herritara eta zeintzuk diren herri horretako jaiak.
 - ✓ Esan ikasleei lot ditzatela ezkerreko zutabeko jaiak eskuineko zutabeko herriekin.
 - ✓ Elkar itzazu ikasleak binaka eta erka dezatela egin dutena.
 - ✓ Egin zuzenketa klase osoarentzat. Ikasle bakoitzari eskatu esateko herri bat eta herri horretako jaiak zeintzuk diren.
- **ATAZA:**
Nolako jaiak, halako gazteak.
1.2.
- ✓ Galdetu ikasleei ezagutzen dituzten jai guztietatik zeintzuk diren onenak eta txarrenak eta zergatik.
 - ✓ Azaldu ikasleei izaeraren edo zaletasunaren arabera aukeratzen ditugula parranda egiteko lekuak eta horretaz diharduela, hain zuzen ere, irakurriko duten testuak.
 - ✓ Irakur dezatela testua: "Nolako jaiak halako gazteak".
 - ✓ Irakurri ondoren eta inori ezer esan gabe, ixil-ixilik, ikasle bakoitzak pentsa dezala zein taldetako lagunekin identifikatzen den gehien. Ez badu egokirik ikusten, sor dezala beste talde bat bereztat.
- **ATAZAOSTEA:**
1.3.
- ✓ Jar itzazu ikasleak hiru eta komenta ditzatela ikaslearen liburuko lau galderak.
 - ✓ Galderak komentatu ostean, lehenengo hiruretan esandakoa denen artean eztabaidatu.

2 Herriko jaietako programa



ATAZAURREA: **Herriko jaiak.**

2.1.

- ✓ Esan ikasleei orain herriko jaietako erreparatuko diezuela.
- ✓ Jarri ikasleak binaka eta eztabaida dezatela euren liburuxkan dituzten lau puntuen inguruan.
- ✓ Eztabaida amaitu ondoren, galdetu bikote bakoitzari zer dagoen soberan eta zer faltan herriko jaietan. Ikasleek esan ahala, apunta itzazu erantzunak arbelean.
- ✓ Bana iezaiezu herriko jaietako egitaraua.
- ✓ Binaka azter dezatela egitarauko zer den egokia eurentzat eta zer ez. Komeni da alde aurretik parametro batzuk jartzea egokitasuna neurtzeko (adibidez ordua, lekua...). Ez du balio esatea "niri ez zait gustatzen, beraz, ez da egokia".
- ✓ Denon artean hitz egin horretaz ikusteko ea bikoteetan esandakoa berdintsua den.
- ✓ Azkenik, erkatu orain esandakoa arbelean dagoen zerrendarekin. Egitaraua irakurri aurretik eta irakurri ostean duten inpresioa bera da?



ATAZA: **Eskaera.**

2.2.

- ✓ Erreparatu arbeleko zerrendari eta irakurri ozenki zer falta den jaietan.
- ✓ Azal iezaiezu ikasleei zer idatzi mota egin behar duten.
- ✓ Jar itzazu ikasleak hirunaka eta pentsa dezatela eurek zer eskatu duten. Beti ere egingarria izan beharko da, esate baterako, ez dezatela diru pila ikaragarria kobratuko lukeen talde atzerritarra eskatu.
- ✓ Hiruko talde horietan ados jarri beharko dira.
- ✓ Erabakitakoaren arabera, ikasle bakoitzak idatz dezala bere eskaeria.



FEEDBACKA:
2.3.

- ✓ Bukatu ahala, horman jarriko dituzte.
- ✓ Horman jartzen dituztenean, egin itzazu zuzenketarik premiazkoenak.
- ✓ Denek denek irakurri eta gustukoena aukera dezatela.
- ✓ Udaletxera bidal dezatela nahi izanez gero.

F: kirolak

Helburuak:

- ✓ *Udaletxera idaztea kexa bat azaltzeko, eta, ahal bada, proposamena egiteko.*
- ✓ *Ikasleak taldean euskaraz aritzera bultzatzea..*
- ✓ *Ikasleek kirolarekin duten harremanaz hausnartzea.*
- ✓ *Herria kirol arloan zelan dagoen aztertzea.*

Zertan den:

Ikasleek kirolarekin duten harremanaz hausnartuko dute: kirolik egiten duten, zergatik... Entzungo duten elkarrizketa baten bidez, "Gaztetxoak eta kirola" izenekoak, kirol gehiegi egiteak dituen arriskuez jabetuko dira.

Orokorretik zehatzera etorriz, euren herriko egoera aztertuko dute, hau da, zein kirol egin daitekeen herrian eta non.

Ataza amaitzeko, eta baita ikastunitatea ere, udaletxera idatziko dute kexa bat aurkezteko, eta, ahal bada, proposamen bat egiteko.

1 Kirola eta ni



ATAZAURREA: Kirola eta ni. 1.1.

- ✓ Azaldu ikasleei zein izango den ataza honetako gaia eta amaieran egin beharko duten lantxoak.
- ✓ Jar itzazu ikasleak hirunaka eta komenta ditzatela aurrean dituzten hiru galderak.
- ✓ Jar dezatela arreta, batez ere, hirugarren galderan. Klaseko guztien artean ahalik eta erantzun gehien eman beharko diote galdera horri. Arbelean jasotzen joan.



ATAZA: Gaztetxoak eta kirola. 1.2.

- ✓ Azal iezaiezu ikasleei entzungo dutenaren nondik norakoa: gaztetxoek eskolan, eta batez ere, gurasoen aldetik jasaten duten presioa kritikatzan dute bi adituk. Kirol gehiegi eta esperantza handiegiarekin eginarazten zaie gazteei, eta honen ondorioz, lesioak eta desoreka psikologikoak gertatzen dira.
- ✓ Irakur ditzatela erantzun beharko dituzten zazpi galderak.
- ✓ Jar ezazu irratia eta Iñaki Arratibeli eta Joseba Etxebarriari egingdako elkarrizketa entzun dezatela. "Gaztetxoak eta kirola" du izenburutzat entzun beharko duten elkarrizketak. Entzun ondoren erantzun ditzatela galderak.
- ✓ Jarri berriro eta, aurrekoan zerbait erantzun gabe utzi badute, erantzun dezatela oraingoan.



FEEDBACKA: 1.3.

- ✓ Elkartu itzazu ikasleak binaka, emandako erantzunak erka ditzaten.
- ✓ Zerbait jaso ez badute, esaeizu beste bikote bati galdetzeko.
- ✓ Zalantza asko dutela ikusiz gero, denon artean egin dezakezue zuzenketa.

2 Herriko kirolak



ATAZAURREA: **Arrasate eta kirola**

2.1.

- ✓ Jar itzazu ikasleak hiru eta lauak.
- ✓ Zerrenda dezatela euren herrian zein kirol egin daitekeen eta non.
- ✓ Talde guztiek jarritakoa batuko duen zerrenda osatu eta bateratu bat egin.
- ✓ Denon artean komentatuko dute nahikoa den dagoenarekin, zein egoeratan dauden, zer falta den... Helburua, ondoren kexu testu bat idaztea da.



ATAZA: **Skatea**

2.2.

- ✓ Uler dezatela ondo zein den egoera.
- ✓ Norbait skatezalea ez balitz edo beste premiaren bat ikusiko balu idatz dezala gustuko duen kirol horren inguruan eta egin dezala bere proposamena.
- ✓ "Idatziak" liburuxkako 58. orrialdean dituzten ereduak irakur ditzatela.
- ✓ Kexa idatzi.
- ✓ Nahi izanez gero udaletxean aurkeztu.

G: erreferentziak

A ataza:

- ✓ "Idatziak" liburuxka. Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuak.
- ✓ "Gazteen eta administrazioaren artean sekulako leizea dago". HABEko Dokumentu Biltegia, 1130 dokumentu zenbakia. Gaztetxulo aldizkaritik hartutakoa. 2000/12/12.
- ✓ Argiro idazteko proposamenak eta ariketak. HAEE, 295. orrialdea (moldatuta).

B ataza:

- ✓ "Eibarko errota gaztelekua". HABEko Dokumentu Biltegia, 369 dokumentu zenbakia. Euskadi Irratiko Goizean Behin saiotik hartua. 2000/06/12.
- ✓ Udaleko arloen egituraketa. www.arrasate-mondragon.net.

C ataza:

- ✓ "Parrandan kotxerik gabe". HABEko Dokumentu Biltegia, 1945 dokumentu zenbakia. Euskadi Irratiko BIDE BATEZ saiotik hartua. 2001/10/06.
- ✓ "Autobusez parranda". HABEko Dokumentu Biltegia, 1868 dokumentu zenbakia. Euskadi Irratiko Goizean Behin saiotik jasotakoa. 2000/09/13.



D ataza:

- ✓ "Aparkaleku isunak". HABEko Dokumentu Biltegia, 3458 dokumentu zenbakia. Euskaldunon Egunkariatik hartutakoa.
- ✓ "Trafiko isunak". HABEko Dokumentu Biltegia, 1699 dokumentu zenbakia. ETBko Bertatik Bertatik jasoa.

E ataza:

- ✓ "Nolako jaiak, halako gazteak". HABEko Dokumentu Biltegia, 3786 dokumentu zenbakia. Gaztetxulo aldizkaritik ateratakoa.

F ataza:

- ✓ "Gaztetxoak eta kirola". HABEko Dokumentu Biltegia, 1791 dokumentu zenbakia. Euskadi Irratiko Goizean Behin saiotik jasoa.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



ANTZUOLAKO
UDALA



ELGETAKO
UDALA



BERGARAKO
UDALA



ONATIKO
UDALA



ARRASATEKO
UDALA



ARETXABALETAKO
UDALA



ESKORIATZAKO
UDALA



LEINTZ GATZAGAKO
UDALA



LEIZOLAKO
UDALA